



Chillida Leku is located on the outskirts of Hernani near San Sebastián and comprises a sculpture park and an exhibition space inside the converted *caserío Zabalaga*, a traditional Basque country house dating from the sixteenth century.

Founded by Eduardo Chillida during his lifetime, it is home to the most comprehensive body of works by the artist. Since first opening in 2000, this museum dedicated to Eduardo Chillida has upheld its mission to promote and conserve his work.

Job profile: Facility Manager

Based in Chillida Leku, as the Facilities Manager you will be a “hands-on” person to perform daily facility maintenance projects. You will oversee building systems contracts and maintenance. You will also be responsible for ensuring that the museum is in compliance with the local and state applicable regulations.

Duties include, but are not limited to:

- Responsible for the condition, care and routine maintenance of all the Museum’s public and private spaces, ensuring that the facility is in excellent working order.
- Regularly interact with and monitor, various contractors, including but not limited to: fire sprinkler and alarm, HVAC, electrical, refuse/waste management, pest control, landscaping, janitorial, security and others as required.
- Schedules preventive maintenance of facility and equipment, responding to urgent maintenance calls and performing repairs as necessary.
- Maintain facilities maintenance calendar and works closely with contractors, informing key staff of facilities maintenance schedule designed to safeguard the property and occupants.
- Serve as primary facilities representative at after hours and weekend events and programs as needed.
- Maintain department vendor files, reviewing invoices for accuracy.
- Coordinate and monitor the day-to-day activities of the janitorial and security staff.
- Oversee the coordination of building repairs and construction projects, facilitating access for contractors as necessary.
- Oversee Museum parking needs.
- Oversee car maintenance and repair.
- Establish equipment repair and maintenance procedures and provide instruction as necessary.
- Responsible for the implementation of building emergency procedures, Museum opening and closing plans as well as best-practice safety and security procedures.
- Assist with special projects when required.

Requirements:

- 2 years in a facilities operations role with budgetary responsibilities
- Experience with vendor management and contracts
- Ability to track expenses and work with a budget. Experience with development of budget preferred.
- Microsoft Office skills including Outlook, Word, Excel, Access, and Outlook.
- Be fluent in English, Spanish and Euskera.

Physical Demands

- The physical demands described of the position are representative of those that must be met by an employee to successfully perform the essential functions of this job. While performing the duties of this job, the employee is regularly required to talk and hear. This position is very active and requires standing, walking, bending, kneeling, stooping, crouching, crawling and climbing all day. The employee must frequently lift or move items over 50 pounds. Specific vision abilities required by this job include close vision, distance vision, color vision, peripheral vision, depth perception and ability to adjust focus.

Position Type and Expected Hours of Work

This is a full-time position. Days and hours of work are Monday through Friday, 9 a.m. to 6 p.m. Occasional evening and weekend work may be required as job duties demand.

Please submit your resume and cover letter, including references by email only to: rrhh@museochillidaleku.com

Chillida Leku Hernani kanpoaldean dago, Donostiatik gertu, eta eskultura-parke batek eta barneko erakusketa-espazio batek osatzen dute, hamaseigarren mendeko Zabalaga baserri tradizionallean.

Eduardo Chillidak sortu zuen bizi zenean, eta artistaren lanen multzo osatuena gordetzen da bertan. 2000an ireki zenetik, Eduardo Chillidaren omenezko museo honek bete egin du bere egitekoa: artistaren lana ezagutzera ematea eta kontserbatzea, alegia.

Lan-eskaintza: Instalazioen arduraduna

Chillida Lekun bertan lan eginda, instalazioen arduradun gisa eguneroko mantentze-lanez arduratuko zara. Eraikuntza-sistemen kontratuak eta mantentze-lanak gainbegiratuko dituzu. Era berean, museoak bertako eta estatuko arau aplikagarriak betetzen dituela bermatzeaz arduratuko zara.

Egitekoen artean daude, besteak beste, honako hauek:

- Museoaren eremu publiko eta pribatuen egoera onaz, zaintzaz eta ohiko mantentze-lanez arduratzea, eta instalazioa lanerako egoera bikainean dagoela bermatzea.
- Hainbat kontratistarekin harremanetan egotea eta haien lanak gainbegiratzea, besteak beste: suaren kontrako aspertsoreak eta alarmak, klimatizazioa, elektrizitatea, zaborren kudeaketa, izurrien kontrola, paisajismoa, atezaintza, segurtasuna eta beharrezko beste edozein.
- Instalazioen eta ekipamenduen prebentziozko mantentze-lanak antolatzea, eta premiazko mantentze-lanei erantzutea, beharrezko konponketak eginda.
- Instalazioen mantentze-lanen egutegiaz arduratzea eta azpierrementarekin gertutik lan egitea, arduradunei instalazioen eta pertsonen egoera ona bermatzeko diseinatutako mantentze-lanen egutegiaren berri emanez.
- Instalazioen ordezkari nagusia izatea itxi ondoko orduetan eta asteburuetako ekitaldi eta programetan, beharrezkoa denean.
- Hornitzaileei buruzko fitxak eguneratuta izatea sailean, eta fakturak berrikustea, zuzenak direla bermatzeko.
- Atezainen eta segurtasun-zaintzaileen eguneroko jarduerak koordinatzea eta gainbegiratzea.
- Eraikinetako konponketa- eta eraikuntza-proiektuen koordinazioa gainbegiratzea, beharrezkoa denean kontratistei instalaziora sartzen utziz.
- Museoko aparkamendu-beharrak gainbegiratzea.
- Autoen mantentze-lanak eta konponketak gainbegiratzea.
- Ekipamenduen konponketa eta mantentze-lanetarako prozedurak ezartzea eta aginduak ematea, beharrezkoa denean.
- Eraikineko larrialdietako prozedurak, museoa ireki eta ixteko planak eta segurtasuneko jardunbide egokiak ezartzeaz arduratzea.
- Proiektu berezietan laguntzea, eskatzen zaionean.

Baldintzak:

- 2 urteko esperientzia izatea instalazioetako operazioetan aurrekontuen ardurak dituen postu batean.
- Esperientzia izatea hornitzaileak eta kontratuak kudeatzean.
- Gastuak kontrolatzeko eta aurrekontu batekin lan egiteko gaitasuna izatea. Baloratu egingo da esperientzia izatea aurrekontuak garatzen.
- Microsoft Office erabiltzen jakitea, Word, Excel, Access eta Outlook barne.
- Euskaraz, gaztelaniaz eta ingelesez ondo hitz egitea.

Eskakizun fisikoak

- Eskatzen diren ezaugarri fisikoak lanpostuaren funtsezko zereginak behar bezala gauzatzeko behar direnekin bat datoz. Laneko egitekoak gauzatu bitartean, langileak askotan hitz egin eta entzun beharko du. Lanpostu oso aktiboa da, eta beharrezkoa da egun osoan zutik egotea, batetik bestera ibiltzea, makurtzea, belaunikatzea, uzurtzea, kokoriko jartzea, arrastaka ibiltzea eta paretan gora igotzea. Langileak sarritan altxatu edo mugitu behar ditu 20 kilotik gorako pisuak. Lanpostu honetarako beharrezkoa da ikusmen-gaitasun espezifiko hauek izatea: gertuko ikusmena, urruneko ikusmena, koloretako ikusmena, ikusmen periferikoa, sakoneko pertzepzioa eta fokuratzeko gaitasuna.

Lanpostu mota eta asteko lanaldia

Lanaldi osoko lanpostua da. Lanaldia astelehenetik ostiralerakoa da, 9:00etatik 18:00etara. Aldian behin, beharren arabera, baliteke iluntzean eta asteburuetan lan egin behar izatea.

Eskabideak emailez bakarrik jasotzen ditugu, bidali zure curriculumak, aurkezpen-gutuna eta erreferentziak helbide honetara: rrhh@museochillidaleku.com